

## Luis Iriondo: "Aktore eta komedianteena da karrerarik tristeena"<sup>1</sup>

Juan Luis ZABALA

Kantaria, musikagilea, musika ekoizlea, prentsa eta irratiko kazetaria, aktorea, Eusko Jaurlaritzako bi lehendakariaren aholkularia eta Euskal Telebistaren aurreneko zuzendaria izan da, beste gauza askoren artean Luis Iriondo; barruko harrak bultzatuta kulturaren arlo askotara aise eta askatasunez hurbildutako autodidakta.

Ez Dok Amairuren hasierako bilera batzuetan parte hartu bazuen ere, berehala jabetu zen Luis Iriondo Etxaniz (Azkoitia, 1931) berak eta orduko bere musika taldeak –Kontrapuntoak– ez zutela zerikusi handirik mugimendu harekin. Bost urte zeramaten ordurako euskal musika esparru berrietara zabaltzen; baina, Ez Dok Amairurekin alde-ratuz gero, oso bestelako estiloan, hala musikari zegokionean nola beren lana gizarteratzeko moduari zegokionean.

Kontrapuntoak taldea desegin eta gero ere bide pertsonal eta eklektikoa jorratu du Iriondok hala musikagintzan nola zinemagintzan, politika ere gertutik ezagutuz, nahiz eta beti uko egin politikan bete-betean sartzeari. Ogibide izan dituen lanak utzi gabe egin du hori guztia: Azkoitiko Forjas fabrikan idazkari, herri bereko Urrategi Akade-

---

<sup>1</sup> 2009ko ekainaren 6an Luis Iriondori bere etxean (Azkoitia) egindako elkarrizketaren transkripzioa da testu hau. Elkarrizketaren bertsio laburtua *Berria* egunkariaren *Igandea* gehigarrian argitaratu zen, 2009ko uztailaren 6an.

mian irakasle eta, urte askoan, Euskadiko Kutzako Marketin eta Publizitate zuzendari.

### **Nolakoa zen kultura giroa zure gazte garaiko Azkoitian?**

Kultura galetan interesatzea, hemen, Azkoitian, gazte nintzen garaian, orain politikan mutur batean jartzea bezalakoxea zen, igual-iguala. Orduan liburuak edukitzea susmorako eta kondenarako motiboa zen. Gu astalapiko handi batzuk izatea nahi zuten: ez libururik, ez musikarik eta ez ezer. Espainia isolatuta zegoen eta hona ez zen ezer ailegatzen: ez laguntasunik, ez informaziorik, ezer ez. Pelikulak zentsuratuta, liburuak zentsuratuta... Franco zegoen, eta jesuitek -nik jesuitak aipatuko ditut, horiek izan direlako hemen indar handia izan dutenak- sekula ez zuten gure artean gauza onik egin. Jesuitek lan handia egiteko aukera izan zuten, haiek zirelako hemengo maisuak eta agintariak, eta ez zuten ezer ere egin. Istorio bat badaukat orduan gauzak nola ziren ondo erakusten duena.

### **Kontatu al dezakezu istorio hori?**

Behin, udako egun batean, 16 edo 17 urte nituela, Zumaiara joan ginen, hondartzan bainua hartzera, eta han arropak busti zitzaizkigun batere uste gabe. Iluntzean dantzaldia zegoenez, han gelditzeko asmoa genuen, eta han ikusi genuen emakume azkoitiar bati eskatu nion ea arropak eta gainerako traste bustiak ekarriko zituen Azkoitira, pakete txiki batean. Akordatzen naiz zer liburu zen: Daphne Du Maurier-en *Posada Jamaica*. Ez zen inondik ere liburu arriskutsutzat jotzeko modukoa. Hurrengo egunean amak esan zidan pakete bat ekarri ziotela, eta paketea ireki nuenean ikusi nuen beste dena han zegoela baina... liburua falta! Paketea ekarri zuen emakumeak azaldu zidan trenean Padre Aranzadi jesuita tokatu zitzaizola aurrean, Azkoitiko luistarren patroia. Liburua ikusi zionean, liburua erakusteko eskatu omen zion Padre Aranzadik, eta ikusi eta gero liburua berak hartuko zuela esan omen zion, berak hots egin eta emango zidala niri liburua. Pentsa zer lotsagabekeria!

### **Itzuli al zizun liburua Padre Aranzadik?**

Bi aste pasatu ziren eta notiziarik ez. Halako batean abisua, Loiolara joateko. Orduan hala izaten ziren gauzak. Joan nintzen eta han zegoen zain, liburuarekin, Padre Aranzadi. Irakurtzearekin kontuz ibili behar genuela esan zidan, eta ezin zela edozer gauza irakurri.

Nortara edo hartara bere terrenora eraman nahi ninduen. "Zuk egin behar zenukeena da beti, edozer irakurtzen duzunean, gurekin kontsultatu", esan zidan.

### **Eta zer erantzun zenion?**

Halaxe egingo nuela esan nion nik. Gure etxean liburu bakarra zegoen ni jairo nintzenean: *Argi Donea*. Liburuak bekatu bezala ikusten ziren orduan. Irakurketako nire zaletasun hartan laguntza bat ematen bazidaten, beren liburutegian sartzen uzten bazidaten adibidez, niretzat gauza handia izango zen hori. Loiolako pasillo handietan pianoak ikusi nituen, hamar bat piano bat bai. Eta ni pianoa ikasten ari nintzen orduan, baina pianorik gabe. Lehengusu batzuen etxera joaten nintzen batzuetan pianoa jotzera. Piano ikasketen seigarren maila egiten ari nintzela esan nion Padre Aranzadiri, eta berak agindu zidan Loiolako pianoetako bat eramango zutela Azkoitira, luistarren lokalera, nik jo ahal izateko, baldintza batekin: luistarretako beste batzuei eskolak ematea. Nik ahal nuena egingo nuela agindu nion. Amaieran, gurasoei han hitz egindakoaz ezer ez esateko eskatu nion Padre Aranzadiri, gure amak kezka handiak izaten zituelako edozer gauza txikirekin, eta berak ez kezkatzeko esan zidan, ez ziela gurasoei ezer esango.

### **Bete zuen hitza?**

Handik hamabost egunetara, gure aitak esan zidan: "Ba al dakik non izan naizen? Loiolan. Padre Aranzadik hots egin zidak, eta esan zidak oso bide txarretan habilela". Gure aitak, ordea, nirekin konfiantza oso-osoa zuela esan zion Padre Aranzadiri, eta bazekiela behar ez zenik ez nuela egingo. Nik gure aitari ez diot inoiz orduan egin zuena benetan eta behar bezala eskertu, sentitzen dudan bezala. Garai hartan luistarren buru zen jesuita bati horrela erantzuteko, oso konfiantza handia behar zuen nirekin. Aitak, ezer jakin gabe, nirekin halako konfiantza izatea munduan izan daitekeen gauzarik ederrena da.

### **Zuri nondik etorri zitzaizun liburuena eta musikaren inguruko interesa?**

Nondik? Gogoia eta beharra! Kulturaren inguruko interesa ez da sortzen batek hala nahi duelako, norberari barrutik irteten zaiolako balzik.

### ***Ez zenuen lagunik edo erreferenterik interes horretan?***

Bai. Luis Forcadarekin asko ikasi nuen, eta baita Juan Ignacio Uriarekin ere. Bi edo hiru urte zaharragoak ziren biak. Haiek izan ziren nire lagun eta prezeptoreak. Haiek ziren orduan hemen, Azkoitian, zerbait zekitenak, eta ni haiengana arrimatu nintzen. Oraindik ere haiek ikasitako gauzekin zeharo markatuta nago ni. Sekula ere eskerrik emateko aukerarik ez dut izan, baina biegi esker irten nintzen aurrera kultura arloan. Bihotz-bihotzean ditut biak betiko.

### ***Londresera joan eta han My Fair Lady musikala ikusi zenuen. Hark eragindako zirrarak bultzatu zintuen Los Conbtrapuntos taldea sortzera.***

Lagun batzuk joan ginen, 1958an, Bruselako Expo ikustera, eta gero handik Londresera. Azkoitiko hiru mutil ginen, eta bestea Oriokoa. Ez dakit sekula gure aurretik euskaldunik pasatuta ote zegoen La Manchako kanaletik. Han behintzat ez zegoen ez euskaldunik eta ez espainiarrik. Orduan ez zen inor joaten Londresera. Toki exotikoa zen hura, aro post-eduardianoko Londres. XIX. mendeko mundua zen hura zeharo. Automobil guztiak ilun-ilunak ziren; gurea, berriz, Orioko lagunarena, hori-horia zen eta atentzioa ematen zien denek. The Beatles taldea sortu eta bertako maisu jarri zenean, lau bat urte geroago, zeharo aldatu zen Londres, baina gu joan ginen garaian Londres azken ehun urteetan batere aldatu gabe zegoen. Meska batzuen lagun eginda, *My Fair Lady* ikustera joan ginen, eta ni trastornatuta atera nintzen handik.

### ***Zergatik eragin zizun halako zirrara?***

Hemendik sekula irten gabe, hara joan eta hura ikustea izugarria zen. *Sleeping Beauty* baleta ere ikusi genuen, eta lehenengo dantzarietako bat Pirmin Treku zen, zarauztarra. Kategoriako dantzaria gero! Programan izena ikusi nuenean, hartaz galdetu eta harekin egoteko aukera izan nuen. Lagun egin giñen eta gurekin ibili zen han egon ginen bitartean, hamabost bat egunez. Oso bidaia ederra izan zen hura!

### ***Eta bidaiaren ondoren...***

Ingelesa ikasten eta *My Fair Lady* euskarara eta gaztelaniara itzultzen hasi nintzen, Madrildik Azkoitira –nik lan egiten nuen enpresan, Forjas-en, idazkari lan egitera– etorri berria zen gizon baten

laguntzaz. Hasieran ez nekien ingeles askorik, baina amaitu nuenerako, hiru urte geroago, ondo moldatzen nintzen. Ez nuen libreto osoa itzuli; kantak bakarrik. Horixe da zailena, musikarekin neurrian egin behar delako. Euskarara itzultzea gaztelaniara itzultzea baino errazagoa da hala ere, euskarak azentu fonetikoak isilagoak dituelako. Kantuen letrak ere askotan egin ditut euskaraz, eta beti errazago iritzi izan diot euskaraz egiteari, ez euskaraz neu gogorrago sentitzen naizelako, hizkuntzak berak ematen duen erraztasunagatik baizik. Euskaraz ia-ia nahi duzun lekuan jartzen duzu azentua, baina gaztelaniaz –eta latinetik datozen hizkuntza guztietan– azentu fonetikoak konpasaren parte indartsuenean joan behar du, eta horrek zailtasunak sortzen ditu.

***Ingelesa aipatu duzu. Baina frantsesa ere antzeratsu ikasi zenuen.***

Hori urte batzuk aurrerago izan zen, 1950 urtearen inguruan. Azkoitira ezkondu zen emakume frantses batekin hasi nintzen frantsesa ikasten. Lehenengo aldiz joan nintzenean frantseseko eskolara, artean ezer ere ez nekiela, 500 orrialdeko liburu handi bat eraman nuen: Ernest Hemingwayren *Pour qui sonne Les Glas*. Lehen eskola egunaren ondoren, iluntzean, ohean sartu eta liburua irakurtzen hasi nintzen. Eskolara hiru hilabetez edo joango ginen, baina nik liburua osorik irakurri nuen, hiztegirik gabe, ulertzen ez nuenean salto eginez. Gero ondo ikasi nuen, irakurketen eta kantuen bidez batez ere. Eta harrezkero beti irakurri izan dut frantsesez. Ba al dakizu zer den hori? Talentua dela esaten dute. Talentua? Bai zera! Ezer ez zegoen! Orduko Azkoitia dena akademiak beteta egon balitz, gaur egun ikasteko dauden erraztasun guztiak egon balira, seguru asko astalapiko handi bat izango nintzen ni, ez nuen ezer ikasiko. Baina ez zegoen ezer, eta derrigor zerbait jakin beharra sentitzen nuen. Eta nola jakiten da? Ahal den moduan! Horrelaxe egin nituen nik gauzak. Gogoa eta kito! Afizio handia!

***Ez zenuen lortu My Fair Lady-ren bertsioa eszeneratzea.***

Nik har bat neukan barruan: *My Fair Lady* ezagutzen nuen, banekien oso ona zela eta harekin zerbait egin nahi nuen. Donostiako Atracción y Turismo-ra eraman nuen proiektua. Asko hitz egin genuen baina azkenean ezer ez. Orduan pentsatu nuen Azkoitian ber-

tan egitea. Ez ikuskizuna, horretarako dirua eta laguntza behar zela-ko; baina bai kantuak. Lau abesbatza zeuden Azkoitian, hiru gizon-koenak eta bat emakumeena, eta abesbatzetako zuzendariak edo ordezkioak hartu nituen: Miguel Mari Azpiazu, Jesus Mari Larrañaga, Gonzalo Zubizarreta eta Pilar Forcada. Juan Ignacio Irureta izan zen gure zuzendaria lehenengo urtean, eta gero Miguel Mari Azpiazuk hartu zuen kargua. Horrela sortu genuen Kontrapuntoak taldea, eta *My Fair Lady* izan zen gure lehen diskoa, 1961ean grabatua. Ez nituen abesbatzetako kantariak nahi, zuzendariak baizik. Ez nituen ahots zoragarriak bilatu –nahiz eta Pilar Forcadak, adibidez, ahots zoragarria izan–, musikaz asko zekiten kideak baizik, paperak erraz irakurtzeko eta moldaketa berriak egiteko gauza izango zirenak. Euskal Herriko polifonia oso famatua da, eta ez motiborik gabe, baina azkeneko 50 urteetan dena geldituta zegoen, ez zen ezer berririk egiten. Nik moldaketa berriak nahi nituen. Adibidez, 1961ean Gershwinen kontzertu osoak eman genituen, Gershwin Espainia osoan ezagutu ere egiten ez zenean.

**My Fair Lady musikaleko kantuak emateko sortu zen taldea, baina gero ibilbide oparo eta arrakastatsua egin zuen: 30 disko eta 150 inguru kantu, 1961etik 1969ra arte.**

Garai hartan Los Xey taldeak sekulako arrakasta zuen, eta talde hartan azkoitiar bat zegoen, Jesus Mari Larrañagaren anaia zaharrena, Xipriano. 25 urtean mundu osoan kantuan jardun ondoren, despedidako kontzertuak antolatu zituzten, eta guri esan ziguten kontzertu haietan parte hartzeko. Gurea afizio hutsez sortutako taldea zen eta guk ez geneukan horrelako asmorik, eta gainera errepertorioz ere ez genuen artean. Baina hasi ginen entseguak egiten. Donostiako Viktoria Eugenia eta Principe antzokietan hemengo taldeek Los Xeyren omenez lau egunez egindako emanaldietan parte hartu genuen, eta jendea harrিতuta utzi genuen, hemen *My Fair Lady* ez zelako ezagutzen. Los Xeykoek ikusi zuten bagenuela zer esana, eta esan ziguten Euskal Herri osoan egin behar zuten despedidako biran parte hartzeko. Hiru hilabeteetan, laneko egun bat bera ere galtzeke, 93 funtzio egin genituen. Irten lanetik seietan, furgonetan bertan aldatu arropak eta joan behar zen lekura joaten ginen, eta gauerdia pasata itzuli etxera, bi funtzio egin ondoren. Eta hurrengo egunean, lanera berriz. Bira horrek sekulako astindua eman zigun guri. Los Xey tal-

deak Belter etxearekin zuen kontratua, eta Los Xeykoen bidez lortu genuen guk ere Belterekin kontratua. Horri esker, hasi eta hiru hilabete pasa baino lehen diskoa grabatzen ari ginen, *My Fair Lady*.

### **Zer ekarpen egin zion Kontrapuntoak taldeak bere garaiko euskal musikari?**

Gure berritasuna izan zen estetikoa, polifonia modernoa ekartzea euskal musikara, eta baita ere mundu guztiko kantak abestea, euskaraz edo erdaraz, ingelesez, frantsesez, italiarrez eta abar. Beldurrik gabe. Errepertorio aldetik oso pretensio handiak izan genituen, eta baita aberastasuna ere. Pentsa ezazu: batzuetan gure kontzertuetako lehenengo zatia polifonia klasikoarena izaten zen, *a cappella* kantatuta (Vitoria, Palestrina Garbizu, Olaizola edo euskaldun polifonistena); eta bigarrena, Gershwin, Youmans edo Kern amerikanoena, edo Brel, Trenet, Brassens, Ferré eta beste autore frantsesena. Nahasketa handia, intentzio eta pretensio handiagoak eta, beti ez lortu arren, noiz edo noiz maila handiko objektiboak harrapatuz.

### **Ez zenuten kantu berririk sortu?**

Ez. Bat bera ere ez. Miguel Mari Azpiazuk eta biok pila bat egin genituen gero, baina garai hartan beti besteek egindako kantak kantatzen genituen. tätzen genituen.

### **Arrakasta handia izan zenuten, baina ez zineten profesionalizatu.**

Bartzelonara lehen aldiz diskoa grabatzera joan ginenean, bertako hiru editore eta Teatro Apolo antzokiko enpresarioa genituen zain geltokian. Ezagutu baino lehen ere, gu han geratzea nahi zuen enpresario hark. "Zuek nahi baduzue sei hilabeteko kontratua daukat hemen zuentzako", esan zigun. "Zuek hemen geratu eta guk ordainduko dizuegu". Baina guk esan genion ezin genuela, lanā egiten genuela eta lau egunerako joan ginela, estu-estu, Bartzelonara, grabazioa egiteko. Eskaintzari eutsi zion. Ez zuen ulertzen.

### **Antoñita Morenoren eskaintza bati ere uko egin zenioten.**

Bai. Hori geroago izan zen. Gu ezagunak ginen ordurako. Ronda de España izeneko bere biretan artista folklorikoak eramaten zituen Ministerioarekin Antoñita Morenok, bere aurretik aritzeko. Andaluziakoak, Aragoikoak... baina euskaldunik inoiz ez. Urte batean gu era-

man nahi izan gintuen Hego Ameriketara egin behar zuen zortzi hila-  
beteko birara, eta guk ezetz esan genion. Ministeriotik ere deitu  
ziguten, eta esan behar izan genien gu ez ginela profesionalak eta  
ezin ginela joan. Ahal izan bagenu ere, ez ginen joango, baina aitzakia  
hori geneukan. "Nola ez zaretela profesionalak?", esan ziguten. "Te-  
levisión Españolan atera zarete eta!" "Bai, baina joan eta etorri".  
"Parisen ere izan zarete!" "Hori ere berdin: joan eta etorri". "Eta  
Paquita Ricorekin egin duzue ba bira bat!". "Bai, baina Euskal Herrian  
ordea, ez kanpoan". Gaizki hartu zuen, Gobernadoreari ere deitu  
zioten... Oso kontu desatsegina izan zen.

### ***Ez zenuten sekula planteatu ere egin profesionalizazioa?***

Ez. Sekula ez. Eta gogorra da hori, gauza arraroa. Eta gero  
zinemaren munduan sartu nintzenean ere berdin: inork baino tenta-  
zio gehiago izan nituen, aukera denak jarri zizkidaten, Bartzelonara  
joateko, Madrilera joateko... baina ez nuen une batez ere pentsatu  
horretara dedikatzea. Nik ez nuen nahi. Hemen egonez egin ahal  
baldin bazen, ondo; bestela, ezer ez. Nik badakit aktoreen eta kome-  
dianteen bizitza zer den. Une batean goian ibiltzen dira, baina gero,  
zer? Karrerarik tristeena horixe da. Pelikula batek huts egin eta behe-  
ra zoaz. Inork ez dizu deitzen. Nik ez nuen horrelakorik nahi. Niri  
egunero jatea gustatzen zait.

### ***Kontrapuntoen azken urteetan eta taldea 1969an desegin eta gero, arrakasta handiko diskoak ekoitzi zenituen: Enrique Zelaia, adibidez.***

Nik ordurako Belterrekoekin harremana nuen, eta hemengo ar-  
tistak Bartzelonara grabatzera eramaten hasi nintzen. Enrique Zelaia  
izan zen lehenengoetakoa. Soinu jotzaile denak ezagutzen nituen,  
baina Enrique Zelaiak beste zerbait zeukan, besteek ez zeukaten  
gatza, tranpa. Eta zer zen tranpa hori? Grabazioak bateriarekin egiten  
zituen, disimulatuta. Kolore folkloriko perfektua zeukan, eta horretaz  
gain bateriaren efektua. Hispavox etxearekin bi pistako disko txiki bat  
egin zuen, eta hura entzun nuenean berehala joan nintzen Altsasura,  
Enrique Zelaia Bartzelonara grabatzera joan behar genuela esateko.  
Lehenengo urte askoan izan zen Euskal Herrian diskorik salduena.  
Gero beste hiru disko ere egin genituen.



### ***Lourdes Iriondok zure eskutik grabatu zituen diskoek ere oso harrera ona izan zuten.***

Joxemari Iriondoren etxean ezagutu nuen nik Lourdes, mojatza-  
tik etorri berria. Gitarra jo eta kantatu egiten zuen. Joan Baezen  
antzeko irudia zeukan, baina gazteagoa zen. Eta gainera, nire ustez,  
Joan Baezek baino ere hobeto kantatzen zuen. Liluratuta geratu  
nintzen. Nik esan nion: "Nahi baduzu, Bartzelonara joan eta disko bat  
grabatuko dugu". Joan ginen, diskoa grabatu Belterrekin, eta sekula-  
ko leherketa izan zen: Euskal Herrian sekula salmenta handienetakoa  
izan duen diskoa. Iraultza oso bat egin zuen, berak bakarrik, Lourdes  
Iriondok.

### ***Ez Dok Amairukoekin hasi zen gero.***

Ez zen Lourdes Iriondo Ez Dok Amairukoekin hasi; Lourdes Irion-  
dok piztu zuen Ez Dok Amairu. Ez Dok Amairuk berez irten behar  
zuen, baina ez zen irten. Lourdes egin zen haien guztien amabitxia.  
Lourdes Iriondok disko klasiko handi bat egin zezala nahi nuen nik,  
betiko izango zen disko bat, Resurreccion Maria Azkueren omenez,  
hark bildutako kantuekin. Disko klasikoa, garaiko begiradarekin. Biga-  
rren disko horretan kantu klasikoak daude, oso ondo kantatuak.  
Akordatzen naiz Aizarnazabalgo El Siete tabernan elkartu nintzela  
Lourdes Iriondorekin, bigarren disko hori prestatzeko, eta mutil gazte  
batekin etorri zela: Xabier Leterekin. Lourdesek galdetu zidan ea zer  
irudituko zitzaidan Bartzelonara, diskoaren grabaziora, Xabierrek la-  
guntzen bazion, eta nik esan nion oso ondo iruditzen zitzaidala, eta  
ordainduko genizkiola bidaiako gastuak hari ere. Nik ez nuen joaterik,  
lanpetuta nenbilelako bolada hartan. Hala ere, asteburu batean joan-  
go nintzela agindu nien. Joan nintzenean, ez zeuden han eta ohar bat  
zidaten utzia. Kontua da maitemindu egin zirela biak; gero, jakina  
denez, elkarrekin ezkondu ziren.

### ***Baina diskoa grabatu zuten behintzat.***

Bai. Ni Bartzelonara joan nintzenerako diskoa grabatua zuten.  
zuten. Xabierrek, Lourdesen bitartez, azala aldatu nahi izan zuen.  
Lourdesen zuri-beltzeko argazki bat nahi zuen azalerako; txima guz-  
tiak nahastuta zeuzkan argazki hartan Lourdesek, eta Jesukristo gu-  
rutziltzatua gogorarazten zuen! Horretaz gain, Resurreccion Maria  
Azkueren izena kendu nahi zuen azaletik, EAJrekin oso lotuta zegoen-

lako. Egia da Azkuek lotuta handia zuela EAJrekin, baina nire ustez hori ez zen motiboa hark egindako bilketa lan bikaina aitoren gabe uzteko. Dena den, ni oso gustura geratu nintzen, Lourdesek disko grabatu zuelako, eta gainera oso azal dotorearekin argitaratu zelako. Gero ez nuen lan gehiago egin Lourdesekin. Baina ezer gutxi grabatu zuen handik aurrera. Benetan harrigarria! Momentu hartan euskal musikak bere historian izan duen kantaririk onena galdu zuen. Berak, berriz, Xabier gizontzat irabazi.

***Ez Dok Amairuren hasierako bileretan parte hartu zenuen, baina berehala utzi zenion joateari.***

Bai, [Jose Angel] Irigarairekin-eta... Guk denbora generaman kantuan, bost-sei bat urte bai. Hots egin ziguten eta ni joan nintzen bilera batzuetara, Donostiako Gipuzkoa plazako pisu batean. Baina ba al dakizu zer pasatzen zen han? Haiek mutil gazteak ziren. Adinez nahiko diferenteak ginen, baina ez zen hori bakarrik. Haiek egiten zuten kantu tipoak ez zuen zerikusirik guk egiten genuenarekin. Errepertorioa ikusi besterik ez dago. Gurea asmo estetikoa zen, beste denaren gainetik. Ez Dok Amairurena kantu konprometitua, orduan azaldu ziren kantautoreena bezala... Lagunak nituen haletako asko, eta lagun izaten jarraitzen dugu, baina ni bilera haletara gonbidatzea, zerbait esatearren, tenor bat pintura erakusketa batera gonbidatzearen parekoa zen. Ez genuen zerikusirik.

***Batzuek gogor kritikatu bazuten ere, Patxi Andionek Iparragirreren kantuekin osatu zuen diskoak ere oso harrera ona izan zuen, eta zure lanik kutunenetakoa da, behin baino gehiagotan adierazi duzunez.***

Beltzerrera lana egiteaz gain, Loiolako Herri Irratirako saio bat egiten nuen: *Música para nuestros días*. Saioaren masterrak Madrilerara bidali eta COPEko irrati kateetan emititzen hasi ziren, harik eta COPEko irrati kateak banatu ziren arte. Saio horren bidez nire berri izan eta gero, Philips diskoetxeokok deitu zidaten, eta zuzendari artistikoarekin eta Radio Nacional de Españakok bi ordezkarekin bazkaldu nuen; Ares zen bi ordezkari horietako bat. Galdetu zidan ea zer disko egingo nukeen nik Euskal Herrian berentzat. "Prestigioko disko ona egin nahi dugu", esan zidaten. "Ez zaigu axola dirua galtzen ateratzea". Orduan nik esan nien Iparragirreren antologia bat

egingo nukeela. Aresi ez zitzaion ideia ona iruditu, baina hurrengo egunean Philipseko zuzendari artistikoak deitu zidan, nire asmoarekin aurrera jotzeko esateko. "Norekin egingo zenuke diskoa?", galdetu zidan. "Zein abesbatzarekin?". Euskalduna abesbatzekin eta polifoniarekin lotzen zuten, antigoaileko moduekin. Baina nik buruan neukana ez zen abesbatza bat, Philipsek fitxatuta zeukan artista bat baizik: Patxi Andion. Punta-puntan zegoen orduan, lehenengoa zen Espainian.

### **Zer erantzun zizuten Philipsekoek?**

Harritu egin ziren, baina nik esan nien huraxe zela aukerarik egokiena. "Euskaraz ez daki baina!", esan zidan Philipseko zuzendari artistikoak. "Ba du ordua ikasteko. Berdin dio. Irakatsiko diogu". Ontzat hartu zuen, baina esan zidan ez zela segurua Andionek nahi izatea. "Badakizu, gaztea da eta arrakastaren aparretan dago..." Bi egun geroago, sekulako autoa zegoen hemen behean. "Zure bila dabilta". Patxi Andion zen. "Zuk nahi duzuna egitera etorri naiz", esan zidan. Nik lanera joan behar nuen ordea. Loiolako Izarra hotelera eramán nuen, eta hurrengo egunean lanean hasi ginen. Ez zituen bi gau eman hotelean. Etxean hartu genuen gero, eta hementxe prestatu genuen diskoa. Gure aita zena lagun egin zuen. Zurikeria denak egiten zizkion Andionek gure aitari, eta gure aita pilota partidoak eta idi probak ikustera eramaten zuen. Ikaragarri ondo moldatu ziren.

### **Zergatik egin zenuen aukera hori?**

#### **Zergatik Iparragirre eta zergatik Patxi Andion?**

Iparragirreren kantuak deladarka kantatzen ziren. Oso gaizki. Itxuragabe. Eta nik Iparragirreren kantuak beren neurrira eramán nahi nituen. Diskoak baditu bere akatsak; baina euskara aldetik ere. Baina ametitzekoak dira. Nik disko hori asko-asko maite dut. Jaurilaritzako bi kultura sailburuk disko hori aipatu zidaten aurkeztu gintuzten egunean: Ramon Labaienek eta Joseba Arregik. Labaienek esan zidan euskal kantagintzan egin den diskorik onena zela. Gauza bitxi bat esango dizut. Disko hori atera aurretik, Ez Dok Amairukoek Iñaki Beobidek Donostiako pisu batean zeuzkan magnetofolekin egiten zituzten grabazioak, eta Iparragirreren diskoa irten ondoren Madrilerara joaten hasi ziren, Philipsera. Grabazioak berak garrantzi handia zeukalabatu ziren. Arrazoa zuten horretan. Hemen ez zen ezertarako

aukerarik izaten. Madrilen, berriz, galdetzen zizuten: "Orkestra sinfonikoa nahi duzu?" Eta nahi bazenuen, aukera zenuen.

***Beste lan asko egin eta ekoitzi dituzu musikaren munduan. Orain arteko solasaldian aipatu gabekoen artean, zeintzuk nabarmenduko zenituzke?***

Asko dira, bai: Iparragirren bigarren *Antologia*, bere heriotzaren ehun urte bete zirenean, Euskal Herriko 25 kantaririk onenekin, adibidez. Unai Hirukoaren *Guda eta amodio kantak*; oso disko ederra da hori. Mucedades taldearen *Kantaldia* Miguel Mari Azpiazu eta bion kantuekin egina dago; Mucedadesek euskaraz kantatzen zituen ia kantu guztiak gu biok egindakoak dira. Xabier Madinarekin egindako lana ere ez daukat ahaztua. Ezta Iruñeko Coral de Camarak hemen egindako lehen diskoa ere. Eta beste asko eta asko...

***Nola sartu zinen zinemaren munduan?***

Euskadiko Kutxarentzat *Ikuska* saileko lanak martxan jartzea izan zen nire lehen lana zinemaren arloan, 70eko hamarraldiaren hasieran. Euskal Herriari buruzko 20 film dokumental laburrek osatutako saila zen *Ikuska*. Horiek egiteko, Elias Kerejetarekin hitz egin nuen lehenengo. Haren anaia Pako zen ekoizle exekutibo lanetan hasatekoa, baina beti geroko uzten zuen eta *impasse* batean nengoen. Orduan, ahaztua neukan aspaldiko adiskide bat agertu zen: Antxon Ezeiza. Madrilen zegoela, exiliotik itzuli berritan, Nestor Basterretxeak eman zion nire asmoen berri. Pilar Olaskoagaren bidez aurkitu ninduen Ezeizak, eta orduan hasi zen *Ikuska* saileko ekoizle lanak egiten. Gero kontatu izan du Ameriketara izan zuela *Ikuska* saila sortzeko ideia, exilioan. Nik ez dakit ideia hori izan zuen edo ez, orduan harremanik ez genuen elkarrekin eta. Baina nik esan dezakedana da Elias Kerejetarekin harremanetan hasi nintzela *Ikuska*-k egiteko Antxon Ezeiza Kubatik Madrilerara etorri baino urtebete lehenago. Eta kito!

***Hala ere, horregatik baino askoz ezagunagoa zara zu Companys, procés a Catalunya (1979) filmeko aktore nagusi lanagatik. Nola sortu zen Kataluniako Generalitateko lehendakari Companysen rola jokatzeko aukera?***

Kataluniako Institutu Zinematografikoarekin harreman ona neukan garai hartan. *Ikuska* sailerako aholkua eskatu nien eta oso ondo

portatu ziren. *Company's, procès a Catalunya* filmatzeko asmoa zuten: Marcel Carné izango zen zuzendaria eta Yves Montand aktore nagusia, *Company's*ena egingo zuena. 36ko gerraren aurretik Generalitatearekin harremana izandako Jaurilaritzako ordezkariaren bat ezagutzen al nuen galdetu zidaten, eta nik orduan Telesforo Monzon aurkeztu nien, Donibane Lohizunen. Gure izeba baten bidez harreman familiarra nuenez, ezagunak nituen nik Telesforo eta bere anai-arrebak. Monzonekin hizketan ari ginela, komentatu zuten Yves Montanden ordezkari nahiago zutela *Company's*en antz handiagoko beste aktorearen bat, eta orduan Monzonek esan zien ni baino antzekoagorik ez zuela ezagutzen berak. Ni sekula aktore lanik egin gabea nintzen; ezta asmorik izan ere. Baina handik astebetara deitu egin zidaten, ea Bartzelonara joango nintzen, proba bat egitera.

### ***Eta joan egin zinen, noski.***

Hegazkinean joan Bartzelonara, eta Tarradellas lehendakariaren bulegora eraman ninduten zuzenean. Proba egiterakoan, Marta May aktoreak albiste bat ematen zidan, nire semea agertu dela esanez, eta nik erantzun egin behar nion. Marta albistearekin etorri zitzaizkidan, negarrez, begietan malko potol-potoloak zituela, nik ezin izan nion barreari eutsi. Lau proba egin behar nituen baina bi egin ondoren nahikoa zela esan zidaten. "Ez dugu lau proba egin beharrik", esan zidaten. "Badakigu oso ondo egingo duzula". Nik ezin nuen sinistu, probak oso gaizki egin nituen-eta. Orduan esan zidaten: "Baina oso gauza garrantzitsua daukazu: ez duzu lotsarik kameraren aurrean. Kamerari begiratu eta ez duzu batere beldurrik. Aktorearen aurpegia handi-handi agertzen da pantailan, eta xehetasun txikiena ere nabari da". Nik ez nekien hori neuk egin nuen artean. Horrela hartu ninduten film bateko aktore nagusi lana egiteko. Yves Montandek egin behar zuen lanerako! Gero filma ez zuen Carné-k zuzendu, ordurako oso zahartua zegoelako, Jose Maria Forn-ek baizik.

### ***Aktore ibilbide batentzako nahiko hasiera bitxia da.***

*Company's* eta bion arteko antzarena aipatu zuenerako, Telesforo Monzonek izango zuen, nire ustez, nik aktore lanetan ondo molda nintekeelako susmoa. Nik publikoaren aurrean askotan agertua nintzen ordurako, eta beti oso lasai. Euskadiko Kutzaren Urteko Kontuak Euskal Herriko bazter guztietan aurkezten nituen *Asanbladetan*,

eta zazpi edo zortzi mila lagunen aurrean hitz egiteak, Gasteizko Mendizorrotzan esaterako, ez ninduen batere ikaratzten. Horretara ere egin egiten da bat.

### ***Nola moldatu zinen filmaketa lanak Euskadiko Kutxako lana utzi gabe egiteko?***

Hiru hilabete hartu nituen hemengo lanetik jai, filma egiteko. Eta ordaindu behar zidatenari buruz hizketan hasi ginenean, nik Euskadiko Kutxako nire nomina erakutsi, eta hasieratik esan nien neurri berean ordainduz gero, ez gehiago eta ez gutxiago, ni konforme izango nintzela. Eta halaxe egin zuten.

### ***Aktore ibilbide nahiko oparo baten hasiera izan zen hura.***

Guztira, 12 pelikulan egin dut aktore lana. Eta Bordeleko Zinemaldian nazioarteko saria irabazi nuen Eloy de la Iglesiaren El pico-n egindako lanagatik. Horretaz gain, zazpi filmetako soinu bandak egin ditut, El pico I eta El pico II-renak horien artean.

### ***Zer film nabarmenduko zenituzke zu parte-hartzaileen artean izan zaituztenen artean?***

Bi nabarmenduko nituzke batez ere: Jose Julian Bakedanoren *Oraingo izen gabe* eta Ferran Llagosteraren *Gran Sol*. Bakedanoren *Oraingo izen gabe* –Bernardo Atxagaren istorio batean oinarritua– euskal zineman inoiz egin den pelikularik onena da, nire ustez. Mirari baten antzekoa. Ordubete eskas irauten du eta ez da oso ezaguna, baina oso ondo dago. Hain ondo irten zitzaigun, Bartzelonako ekoizle batekin hitz egin genuen filma luzatzeko aukeraz. Baina azkenean ez genuen luzatu. Nahiz eta zuzendariak euskaraz ez jakin, hizkuntza aldetik bikain planteatua dago, euskalkiak eta batua oso egoki nahastuta. Askok esan didate *Oraingo izen gabe* ez dela merezi bezala ezagutzen. Nire ustez, euskal zinemari –eta antzerkiari ere– falta zaizkion tripak pelikula horrexek dauzka. Lehenengo aldiz euskalkiak erabili zituen arma dramatiko moduan; Shakespeare edo lehen mailako idazleen lanetan bezala. Elkarrizketek eta esaerek bizitasun ikaragarria hartzen dute, drama su eta gar kontatu bitartean. Pertsonaiek –bost antzezle bakarrik– eta gaiak berak ere lehenengo mailako diseinua dute, Atxagaren gidoian eta Bakedanoren zuzendaritzapean. *Gran Sol*-en, berriz, ontziko patroia ere egin nuen, beste bitan

bezala: Anjel Lertxundiren *Kareletik* eta Ferran Llagosteraren *Terranova*. *Gran Sol* film bikaina da, eta nire bizitzako rolik ederrena eman zidan.

### ***Nola iritsi zinen Ajuria-Enean Carlos Garaikoetxearen aholkulari gisa lan egitera?***

Euskadiko Kutzaren eta Garaikoetxearen arteko tratu baten ondorioz. Euskadiko Kutzako Marketin buru nintzela, Garaikoetxearen-tzako harrera bat antolatu nuen Arrasaten, Euskadiko Kutxa bisitatze-ra joan zenean. Garaikoetxea ez zegoen ohituta horrelako harrereta-ra, eta galdetu egin zuen ea hura nork antolatu zuen. Nire izena alpatu ziotenean, ni ezagutzen ninduela jabetu zen berehala, *Compagnys* filmaren estreinalditik. Nire nagusiarekin hitz egin, eta nagusiak esan zion nahi bazuen bidaliko ninduela ni Ajuria-Enera bolada baterako. Nirekin hitz egin zutenerako erabakita zuten hala egitea. Loritoa kaiolan bezala entregatua izan nintzen. Eta oso ondo moldatu ginen Garaikoetxea eta biok. Sekula gustura egon banaiz, garai hartan izan zen. Esperantza handiak zeuden gainera orduan Garaikoetxearekin. Gero beste inork izan ez duen karisma zeukan. Euskadiko Kennedy hura izan zen. Etsaiek ez zuten utzi bakean eta gure Camelot urte askotarako izorratu zuten. Utzi ballote, zer izango ote zen gure Historia?

### ***Euskal Telebistako lehen zuzendaria izan zinen gero.***

Garaikoetxearen aholkulari nintzen Euskal Telebista martxan jartzeko lanak hasi zirenean. 30 edo 40 kazetari prestatzen ari ziren Euskal Telebistarako, maiatzetik abendura arte. Alemanian egin zituzten ikastaroak. Nik orduan aurkeztu nien nire ustez zuzendari izateko pertsona egokiena zena: Xabier Elorriaga aktore, kazetari eta Kataluniako Bella Terra Unibertsitateko irakaslea. Ajuria-Enera eraman nuen egun batean, eta Garaikoetxea lehendakariarekin eta Ramon Labaien Kultura sailburuarekin hitz egin zuen. Ondo iritzi zioten Elorriaga zuzendari izateari, eta Elorriagak ere baietz esan zuen. Baina, telebista martxan jartzeko bi hilabete falta zirela, Elorriagak ikusi zuen kristoren arazoa zegoela, han inor gutxi zegoela telebista bat zer zen zekienik. Kezkatuta, atzera egin zuen. Telebista bateko zuzendari lana oso gogorra da. Orduan Ramon Labaienek esan zuen ni izango nintzela zuzendaria. Nik ez nuen nahi. "Ni Euskadiko Kutzak utzita ari nauk

lanean Ajuria-Enean, eta orain zer eta Ajuria-Eneak utzita Euskal Telebistara? Zoratuta nagoela uste al duk?” Baina telebista martxan jartzeko unea zetorren, ez zegoen zuzendaririk, eta azkenean Garaikoe-txeak eskatu zidan zuzendari kargua hartzeko, hilabete batzuetarako besterik ez bazen ere. “Zuk esaten baduzu, nik zer esango dut ba?”, esan nion. “Nik egin egin behar”. Azkenean, lehen bi urteetan izan nintzen ETBko zuzendari. Urdailean ez dut inoiz arazorik izan, baina lan hartatik ultzera batekin irten nintzen.

### ***Gero Euskadiko Kutxara itzuli zinen.***

Euskadiko Kutxakoei ez zitzaien ondo iruditu ni Euskal Telebistara joatea. Garaikoe-txearen aholkulari nintzen bitartean, lau egunez Ajuria-Enean egiten nuen lan eta beste batez Arrasaten, Euskadiko Kutxaren egoitzan. Baina ETBko zuzendari izendatu nindutenean, gauzak aldatu egin ziren: batetik, telebistako lanak osorik jaten ninduelako; bestetik, izendapena ofiziala zenez, ezin nuelako Euskadiko Kutxarentzat lan egin. Euskadiko Kutxakoek uste zuten ez nintzela itzuliko. Baina ni itzuli egin nintzen. Ez dakit zergatik, baina nik beti oso argi izan ditut gauzak alde horretatik.

### ***Euskadiko Kutxako langile gisa hartu zenuen erretiroa, 52 urterekin.***

Euskadiko Kutxarekin tratua eginda. Hasieran egun erdiko lana egiten nuen. Gero beste era batera antolatzeko eskaintza egin zidaten: “Zu gurekin gelditzen zara, eta guk edozer gauza egiteko behar zaitugunean zuk etorri egin behar duzu. Bi egunetan etortzen bazara, bi egun ordainduko dizkizugu eta lau egun badira, lau. Eta gainera zure gizarte segurantza ordainduko dizugu hilabete osoa lan egingo bazenu bezala”. Hori niretzat sekulako aukera zen! Horrek eman zidan aukera *Kareletik*, *Gran Sol* eta *Terranova* filmetan erreskadan parte hartzeko. Eta gero beste gauza asko egiteko. Gauza pila bat egin nuen, sekulako askatasuna neukalako.

### ***Ardanzaren aholkulari ere izan zinen.***

Bai. Euskadiko Kutxako nire lagun Jose Antonio Ardanzarekin ere aholkulari izan nintzen, urte batzuk geroago. Gizon eta agintari jatorra, bat bada. Ardanzak eskaintza egin zidanean nik duda handiak izan nituen, eta esan nion aurretik Garaikoe-txearekin hitz egin behar



nuela. Garaikoetxeari baimena eskatu nion Ardanzen aholkulari izateko. Esan zidan ez zuela harritzen Ardanzak niri deitu izanak. "Ez dizu deitu meritu politikoengatik, zure lana ondo ezagutzen duelako baizik", esan zidan. "Joan zaitez lasai". Gero badakit jendeak nitaz jardun zuela "lehen Garaikoetxearekin eta orain Ardanzarekin" esan eta nire kontra hitz egiten, baina ni Ardanzengana joan nintzen Garaikoetxeari baimena eskatu eta gero. Ardanzen aholkulari lana egiteko ez nintzen egunero joaten Gasteizera, eta denbora librea izaten nuen pelikulak eta bestelakoak egiteko: soinu bandak, telebis-tako saio bat, New Yorkera, Londres edo beste edonora bidaiak...

### **Zertan zabilta orain?**

Oso osasun ona daukat, Jainkoari eskerrak, eta aspaldian nahi dudana da arazorik ez izatea. Eta edozer gauza egiten dut arazorik ez izateko, hau da, presarik eta larritasunik gabe bizitzeko. Izan ditut nire presak eta larritasunak, eta orain nahi dut bakean bizi. Kataluniako bi ekoiztetxerentzat lan egiten dut, eta beren film dokumentaletako musikaz arduratzen naiz batez ere. Gero lagun asko ditut munduan zehar. Oraindik ere osasuna, denbora eta gogoia baditut, eta, presarik gabe, kanpoan egiten ditut denboralditxoak. Datorren neguan nire asmoa da hilabete eta erdian New Yorken egotea. Zer egiteko? Begiak ondo ireki eta paseatu... Horretaz gain, liburu bat idazten ari naiz.

### **Zer liburu?**

Kontrapuntoen *My Fair Lady* lehen diskoaren azaleko argazkia egin zuen argazkilariarekin bizi izan nuen gertakari bitxi bat kontatuko dut liburu horretan. Ekialdeko Berlinen izan zen gertakari hura, 1962ko abuztuaren 12an, harresia eraiki zuten egunean.

### **Zer hizkuntzatan idazten ari zara?**

Gaztelaniaz. Euskaraz idazteko, freskura handia behar da, estilo bat, eta niri errespetu handia ematen dit. Gutunak eta artikulu laburrak idazten ditut euskaraz, baina liburu oso bat egiten ez naiz ausar-tzen. Gaztelaniaz ere, ez dakit kapaz izango naizen.

### **Baina kantuen hitzak aise eta erruz egin izan dituzu euskaraz.**

Bai, baina hori diferentea da. Hori errazagoa egiten zait.

## Zergatik?

Dena ohitura kontua da. Gu lehenengo mailan bakarrik eskola-tuak izan ginen, baina erdaraz. Bestetik, gazteak ginenean Azkoitian bertan ere familia burgesetan erdara egitea zegoen modan. Gu ez ginen maila horretakoak eta euskara labur-laburrean hazitakoak izan ginen. Baina horregatik gure adinekoak era hartako edukazioaren biktimak izan ginen. Pentsa ezazu nire Bererosuetako aitonak, erdaraz hitz bat ez zekienak, beti galdetzen zidala: "Luix, erderaz aurrera egiten al dek?" Eta gero nire *erdarakaden* zain gelditzen zen, harro-harro. Gure Azkoitian ez zen orduan euskara hitz egitea debekatu beharrik, denon problema beste bat zen eta... erdaraz ondo ikastea. Garai hartan euskaraz idatzita nik uste dut *Zeruko Argia* bakar-bakarrik zegoela. Nire aitaren bi lehengusu, Anizeto eta Juan Zugasti Iriondo, beste batzuekin batera, izan ziren sortzaileak, eta akaso horregatik denbora luzean izan nintzen harpidedun. Baina gure bizitzaren desafioa erdaraz, frantzesez, alemanez edo ingelesez egitea zen. Hori izango da seguru asko zure galderaren erantzuna. Nik lantokietan lau-bost hizkuntza ibili behar izan ditut baina euskaraz prosa literarioa idazteko mailarik ez dudala uste dut. Beste gauza bat da bertsoan. Gu euskaldunok, denok, pixka bat bertsolariak gara, eta Auspoa bilduma oso-oso daukat etxean, Zugasti Iriondo anaiei esker. Beti gustatu izan zaizkit bertsoak, eta gehiago euskara lirikoak. Beraz, meriturik batere ez dauka.

## MOTZEAN

NEMESIO ETXANIZ. –Azkoitiarrismorik baldin bada, D.Nemesio da bere esentzia.

AUGUSTO ALGUERO (aita). –*My Fair lady* gaztelaniaz erregistratzeko aukera eman nion, baina ez zen ausartu, diru pixka bat eskatzen ziotelako. Hiru urte geroago filma egin zen. Ausartu balitz, biok aberastu egingo ginen.

AUGUSTO ALGUERO (semea). –Orkestra konponketak egiten, Espainian onena.

MIGUEL MARI AZPIAZU. –Lehen mailako artista eta lehen mailako adiskidea.

PATXI ANDION. –Patxi Andion eta biok elkar ulertzera kondenatuak gaudе.

XABIER MADINA. –Nire bizitzan aurkitu dudan mutil xarmangarrietako bat. Xarmangarriegia beharbada bizitza honetarako.

ELIAS KEREJETA. –Berarekin oso noizean behineko harremanak baino izan ez ditudan arren, oso adiskide ona.

IPARRAGIRRE. –Nere umetako musika. Gure amak Iparragirrerен kantuak kantatzen zitzen. Nik ezin dut distantziarik jarri Iparragirre-ekin. Ez dakit bere kantuak onak diren edo ez. Niretzat beste zerbaıt dira, barru-barruan dauzkat. Batzuentzat aberria edo alderdia dena, niretzat Iparragirre da. Bere 17 kantuek dardarrak ipintzen naute oraindik ere.

CHARLES TRENET. –Europako kantautoreen aita. Bera gabe Frantziak ez zituen izango Brassens, Leo Ferre, Jacques Brel eta Boris Vian, ezta bere 600 *chef d'oeuvre* mailako kantak ere. 1977an ikusi nuen, Parisko Olimpia aretoan, Joan Mari Torrealdarekin batera. Akordatuko da bera ere.

MARCEL PROUST. –Bizitza, arteaz eta are zientziaz daukadan ezagutza urriaren gida. Nire unibertsitea, nere estetika eta baita ere nire sensibilitatearen moldatzaille eta maixoa. Duela bi urteko udan sekulako gozatua hartu nuen *A la recherche du temps perdu* oso-oso berrirakurtzen, bi edizio berri batera egin ziren Espainian eta.

AZKOITIA. –Nik ez diot inoiz utzi Azkoitian bizitzeari. Inoiz ezin izan naiz bizi izan Azkoitia gabe. Baina gaur egun Azkoitia *has been* bat da niretzat. Normala da. Adinak aldatu egin gaitu. Akaso gauza asko hobetu egingo ziren, baina nik ez zut Azkoitia lehen bezela maite. Orain bi astean behin txarangak ekartzen dituzte gau osoan bere indar guztiarekin eskandalo betean joaz Herriko Plazaren erdi-erdian. Gainera aspaldian Azkoitia Obra Puiblikoaren Zoro-Itaizeak joa dabil eta hemen ez dago bakerik; zeure etxe barruan ere ez dizute bizitzen uzten eta... Gainera, ikusiko dugu kontuak nork ordainduko dituen. Hemengo demokrazia lotsagarria, horrenbeste nahaspen politiko, gure elkarrentzako errespetu falta eta gorrotoa, eta hemen dagoen konpondu ezinarekin, nazkanazka eginda naukate, eta hemendik alde egin eta New Yorkera bizitzera joateko gogo gero eta handiagoak dauzkat.